

Alde A:

**KOSTAKO BIDEA** 3' 20"  
**ROCK & ROLL MARRUMA** 5' 02"  
**MILIOI BAT DOLAR** 3' 27"  
**ZORRIK EZ** 4' 00"  
**KAIA BARRENIAN** 5' 30"

Alde B:

**GAUEKO BURUKO MINA** 2' 56"  
**TXATXO** 5' 07"  
**ERRESPETATU** 3' 35"  
**LARRUZ LARRU** 4' 07"  
**URTAIN** 6' 13"

**KONPOSAKETAK:** Roberto Moso, Antonio Tabares, Ernesto Alaba, Jose Luis Lafuente, Jesus Manuel Alonso, Alfonso Herrero.

**MILLIOI BAT DOLAR:** Hauek+ Xabier Euskitze  
**ZORRIK EZ:** Hauek+ Joseba Egiguren+ Andres Abuin  
**KAIA BARRENIAN:** Hauek+ Andres Abuin  
**TXATXO:** R. Blanco, O.Mendez, C. Blanco

#### KOSTAKO BIDEA

Hor gindoazen, pozik bageunden. Guztiok kostako bidean, mendi eta hondartzetan barrena.

Eguzkiz zeruan, urdin uretan. Guztiok kostako bidean, mendi eta hondartzetan barrena.

Santurtzitik goizez irtenda, Donibane Lohitzunerantz, farre eta kitarren artean, furgoneta zahar honetan. Sopelatik Baklora eta Bermiotik goaz Lekeltiora, Ondarrutik Getairra arte, Pasai Antxotik Hondarribira.

Kostako bidean, zorion hutsa, inoiz ez dugu hortik irten nahi.

#### ROCK & ROLL MARRUMA

Saltsa, Soul eta Funkyak mugitu egin naute. Reggae, Ska eta Rapekin ibili naiz ere. Goazen!

Batzutan berotu naiz Rumba eta Boleroz, baina zurekin legez inoiz ez dut igo. Goazen!

Orain dantza egin nahi dut ilargiari oihuz, dezibelio guztiak zainetan barrena.

Orain barre egin nahi dut den denaz eta apurtu. Munduko zaratarik ederrena entzun.

#### ROCK & ROLL MARRUMA

Droga moeta guztiak barruan dituzu. Sexuaren eztiak zara elikatu.

Orain dantza egin nahi dut...

#### MILLIOI BAT DOLAR

Dirua diru, han eta hemen, erregalarik onena omen. Ea norenagan aurkitzen duzun, nigan adina, aberastasun. Denak utzita... zatoz hona, kuttuna.

Bakarrik asko, sufritu dut bart, gaur zuretzako, poltsa bat dakart. nirea ez da, eskaintza txarra... ados badago, zure senarra. Nire ohean ... nahi zaitut gaur gauean.

Milioi bat dolar dauzkat zuretzako, poltsa eta fina zarelako. Erantzun azkar, bai ala bai? ez al duzu aberats izan nahi?

Milioi baten jabe, lan haundirik gabe. Dudan bazaude... senarrari galde. Hor duzu nire ohe zuria, zabal-zabala, garbi - garbia. Karizi, laztan, hasperen, muku... nirekin ongi pasako duzu.

Ez da lotsagarria, zaude lasai, gaur egun nori ez du aberastu nahi? Dena dago erosgai, dena salgai, dena salgai... bai eta zu ere bai.

#### ZORRIK EZ

Eguna iluntzean azken uneak erretzen, itzala nagusi, oso urrun elkarrengandik. Zer gertatu da?

Non dago koska? Ezin berba egin minik egin gabe

Irtenbiderik ez. Pikulara bidaltzea agian onena, eta beste edonor topatu. Azken finean, auskalo zer den gure burutan gordeta duguna.

Irabazi duzun guzti guztia neuk baino ez dut galdu. Gura duzuna egin, berdin zait eta, ez dit lebarik orain. Zorrik ez dut zurekin.

Gaua urbiltzean ez, ez nitaz inori galde. Desagertuko naiz, ez naiz sekula itzuliko. Bide berriak urratzen noa, zugandik asago... Karibealdera edo.

Zorrik ez dut zurekin: Oroitzapenik ez Zorrik ez dut zurekin: Bihotz barruan Zorrik ez dut zurekin: Momentuaz gozatu Zorrik ez dut zurekin: Horixe da, entzuten?

#### KAIA BARRENIAN

Malkoak laino artean kaia barrenian. Baretasunez garabietan.

Soinuen artean abesti triste. Doinu amaigabeak, siranotsetan.

Argiak urrutian mezuak bidaltzen, amodio ahaztiak, lainoa urratzen. Emakume baten argazki hautsiak. Beste bihotz bat du zatitzen, boulesbarrean.

Kaia barrenian, ilunabarrean, suzko grinak. Kaia barrenian, ona eta txarra, moteliduta. Farreak tabernetan durunda, farreak airean durunda.

Galduen aberria, babekeko dorrea, non farre eta malkoak diraute airean. Arimaren zauriak bitakätzen dirade etengabeko mezu itsasoan zehar.

Farreak tabernetan durunda farreak airean durunda.





# AMA BALA



## GAUEKO BURUKO MINA

Gaua hasi zen hizketan, egoeraz. Ohizko lagunekin eztabaidaka. Geroxeago aritu ginen futbolaz eta tele-ali gorrotagarriaz.

Zenbat esaldi eta hitz hutsak, gaueko buruko mina. Mingaina agortua daukat, belarriak bero bero eta puztuak.

Denok batera ozenki eta oihuka, tabernan zarata "tope" dagoela eta. Ez dakit zer diozun, ez didazu entzun moskoatu al zara? ezin dut ulertu

Zenbat esaldi...

Aditu lagun, barkatu. Esan altuxeago, ez dizut entzun. Ixilik hago, mesedez, honela ez duhu elkar ulertzen. Horrenbeste oihu bota eta gero, gai ezberdinetan geuden guztiok.

Zenbat esaldi...

## TXATXO

Batzuk esaten eben diru mordo zeunkela gordetik, auskalo non daukazu zuloa! Beti berdin jantziarik eta zigarrakina ezpainen artean, dardarti eta amatatua.

Beti bakarrik, triste ikusten zindudazan, albarka zaharrez bidean eta euritakoa eskuetan. Beti bakarrik, haizeari egiten berba, batek daki nondik eta norantz.

Txato, non zagoz Txato? beste mundura joan zinen, hori probatu barik. Neskazalea bazinen baina ifioz ez zuen inoiz zuzagz dantza egin nahi.

Gutxi ezagutu zinduezan, bainan hileta eta mezarik ez da izan zu agertu barik. Lagun minik ez bizitzan eta orain hiltzean herrian, gogoan ez dautsuenik ez dago.

## ERRESPETATU

Geldi hor! zagozen lekuan. Ez etor beti izorralzera. Ez al dakizu gatazka gehienak horrexegaitik direla? Airea eta jana baino lehenago, kontuzi hemen ibili behar naiz eta... ERRESPETATU!

Ixilik! gezurrik ez esan. Ba dakit zein den zure helburua. Inor ez da inor baino zigarrago, indarrak du gakoa, baino borbakakeriaz lortuak, sabelan izango du mendekua. ERRESPETATU!

Entzun hau! susmatzen dudun hau. Ari naiz zintzo hitzegin nahian. Lagunik ez dago, ez maitasunik, ez eta beste helburu derrik, ez dago ezer merzei duenik ez baduzu kontutan errespetua... ERRESPETATU!

## LARRUZ LARRU

Larruz larru, zeruaren gailurrean. Geldi geldi, gaude bi ala bat gera? Hatzamarrez elkarri goxo lastanduz. Gu besterik ez dago ezer.

Bi taupadak bateratuz, sentzuak galtzen ditugu. Zeintzu garen nora goazen, ez dakigu, zorionez.

Olatuak lehertzean legez, elkarri jotzen apararak. Bi zaldi erotuak legez, ezin baretz indarrak.

Sartu, atera, zurrupatu, ausiki eta hatzamarra egin. Iraulka eta milkatuz, intziarik... alarauak...

Olatuak lehertzen legez...

Bi gorputzen izurkiak, atseginez nahastu dira. Ez galderik ez eta hitzik. Besterik ez. Urrengo arte.

## URTAIN

Jakina. Gora doazen denak, egunen batean jeltsi behar. Gainera, zenbat eta gorago joan erortzen da okerrago. Eta askotan, mila txalo artean egon zaitzke bakarrik. horrela, kolpeka lorturikoa, kolpez amaitu da.

Non ezkatatu dira hoiak, txapela jantzen zizutenak? Non geratu dira hoiak, saizko lagun minak? "El orgullo de la patria" ozenki ziotenak? zuk eginiko aberatsak, Joxe Manuel Ibar "Urtain".

Indarra, harri astun bat jasotzen erabiltzen dena. Baita ere, Europako txapeliduna izateko ukabitez. Gehiago, atzera -kontua bizitzan entzun orduko. Eta orain, indarrez galdu izan duzu azken erasoketa.

Non ezkatatu...

Hor dago jendetza Zestoan, plazan oihuka. "Royal Albert Hall"ean, ospe guerdian. Guztien mirespena, laster ahazturik, izan al da zure azken oihartzuna?

## ZARAMARI HARROTUAK:

TXUS ALONSO: KITARRAK. TONTXU TABARES: KITARRAK ETA ABOTSAK. ERNESTO ALABA: BATERA. ROBERTO MOSO: ABOTSA. JOSE LUIS LA FUENTE: TEKLATUAK. ALFONSO HERRERO: BAJOA.

AZPIEGITURA: JOXE L. OIOBARREN.

ABESTI GUZTIAK AURREAN AIPATUTAKOEN EGINAK DAUDE. HAUEXEK APARTE: TXATXO: R. BLANCO, O. MENDEZ, C. BLANCO. MILIOI BAT DOLAR: ZARAMA-XABIER EUSKITZE. ZORRIZ EZ: ZARAMA-JOSEBA EGIGUREN- ANDRES ABUIN. KAJA BARRENIAN: ZARAMA- ANDRES ABUIN.

HURRENGO HAUEN EMANKORTASUNARI EZKER ONEZ: ANDRES ABUIN, RAFA ROMERO, AITOR BILBAO, CARLOS ZUBIAGA, JAVIER ARROYO -POYO-, ROLAN LOIZAGA, XABIER ALVAREZ, JAVI MARCOS, CARLOS "AMA SAY", NATXO ABAD, HARITZ HARREGUI.

LANEN KOORDINAKUNDEA: JOSE MARI GOIKOETXEA.

GRABAKETA ETA NAHASKETA: CESAR IBARRETXE ETA JEAN PHOCAS, ELKAR ESTUDIOETAN (DONOSTIA)

AZALA: MANOLO GIL MAKETAZIOA: NINES AMORENA ARGAZKIAK: HECTOR ELORDUY

ESKORBUTO TALDEARI DEDIKATURIK.